



EBAZPENA, 2021eko apirilak 9koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2020ko azaroaren 4a),

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, lehiaketa horretan eskaintako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira. Horren ondorioz,

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin betiko lanpostu bete behar diren Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Interesatuak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**